

EITB mundura zabalduko da ETB Sat eta Internet bidez

Canal Vasco-ETB Sat eta web orrialde berria aurkeztu ziren atzo Gasteizen

Erredakzioa / Donostia

Canal Vasco-ETB Saten emisioaren hasierako ekitaldia eta eitb.com web orrialde berriaren aurkezpena egin zuten atzo arratsaldean Gasteizen, Lehendakaritzan. Bertan izan ziren Juan Jose Ibarretxe, Mari Karmen Garmendia, Iñaki Agirre, Andoni Ortuzar eta Joxe Felix Azurmendi.

MUNDUAN ZEHAR bizi diren euskaldunen arteko harremanetan etorkizun oparoa espero dute EITBko arduradunek, eta halaxe adierazi zuten atzo arratsaldean Gasteizen Andoni Ortuzarrek eta Joxe Felix Azurmendik.

Gaur egun, ikus-entzunezko komunikabideak euskarri berrien bila dabilta etengabe, eta mugak gainditzten dituzte; teknologiak hurbilago jartzen ditu ikus-entzuleak, bizkorrago eta kalitate handiagoarekin. Egoera horretan EITBk mundu zabaleko euskaldunengana iritsi nahi du Canal Vasco-ETB Sat eta Interneten bitartez.

Canal Vasco-ETB Sateko programazioa jatorriz euskaldun diren edo euskal gaietarako zaletasuna duten



EITB.com web orrialde berriaren aurkezpen ofiziala egin zuten atzo Gasteizen, Lehendakaritzan.

amerikarrentzat dago pentsatuta. Kate horretan telebista generalista baten programazioaren alde guztiak daude: aisialdia, ekonomia eta kultur informazioa... Esaterako, egunero *Noticias para America* emititzen du, Euskal Herriatik Amerikarrentzat eginiko albistegia (Ana Urrutiak aurkeztua), eta ohiko *Teleberri* ere emititzen du. Aktualitatezko *La*

Semana tertulia saioa eta *Encuentro* elkarrizketa saioa ere emititzen dituzte.

Bestetik, EITBko web orrialde berriak egun-eguneko itxura du, garai berrietarako bereziki prestatua. Bertan dagoen informazioa lau hizkuntzatan dago. Aurkezpen orrialdeak lau gune ditu: 1-Nabigaziorako menua. 2-Euskadi munduan tartea. 3-Aktualitateko eta

EITBko albisteak. 4-Taldeko hedabideen eta gertakizun esaguratsuen zuzeneko emisioa. *Webcam* deritzonak Euskal Herriko hiriburueta-ko irudiak 24 orduz erakutsiko ditu oso laster, eta ww.eitb.com helbidean sartuz gero, gainera, irati publikoak entzuteko aukera izanen da aurki. Gaztetxoek euren txokoa dute *Top Gaztea*-n eta sukaldaritzak ere

SER kateak saio berezia egingo du bihar Bilbon

■ Zuzenean ariko dira Euskalduna jauregitik, 12:00etan, hiriaren 700. urteurrena dela eta

Erredakzioa / Donostia

RADIO BILBAO-SER KATEAK programazio berezia prestatu du biharko, Bilbo-ko 700. urtebetetzea ospatzeko. Eguerdiko 12:00etan *Hoy por Hoy* irratsaioa egingo dute Euskalduna jauregian, eta bertara hainbat gonbidatu eramango dituzte Carlos Bacigalupek eta Veronica Brettesek: Jose

Luis Iturrieta Bilboko historia gastronomikoaz arituko da, Javier Molero zezenketei buruz, Elias Mas Bizkaiko hiriburuko arkitekturaz, Jose Luis Arrate eta Felix Oraa Athleticen inguruan mintzatuko dira, Kepa Junkera musikaz, eta Oskorrik zenbait kanta eskainiko ditu. 16:00etan, berriaz, Gemma Niergak Bilbotik egingo du *La Ventana* saioa.



Kepa Junkera izango da *Hoy por hoy* irratsaioko gonbidatuetakoa bat.

laburrean

Jose Angel Hevia gaiteroa 'Séptimo' saioan izango da gaur

Joaquin Luquik elkarrizketatuko du gaur gauean Jose Angel Hevia gaitero asturiarra La2 kateko *Séptimo* saioan. Era berean, 23:00etatik aurrera, Heviaren zaleek bere musikaz gozatzeko aukera izanen dute. Hevia laguntzeko Cristina del Valle, Luar Na Lubre, Mestisay eta Villaviciosa gaitero batzuk gonbidatu ditu Miguel Bosek. Heviak bere azken diskoko kantak joko ditu (*Tierra de nadie*).

Oporretarako proposamenak 'Ikusgela'-n

Oporrak prestatu nahi dituzten ikasleek laguntza paregabea izango dute ETB1 kateko *Ikusgela* saioan. Gaur 11:30ean Elgoibarko San Bartolome ikastolako bi lagunek Jugatx Ormaetxea begiralea elkarrizketatuko dute udalekuen inguruan. Bestetik, Kanboko Errobi ikastolak sortu duen multimedia egitasmo berria ere hizpide izango da saioan. *Bideo didaktikoan* Luis Buñuel zinema zuzendariaren bizitza aztertuko dute.

Hiru dokumental interesgarri F3 kateko 'Des racines et des ailes' saioan

Patrick de Carolisek aurkeztzen du *Des racines et des ailes* saioa, F3n, eta hiru erreportaia eskainiko dituzte 21:00etatik aurrera: lehenengoa Greziako hiru uhartearen inguruko izango da, bigarrena Côte d'Azurko txalet ederrei buruzkoa eta hirugarrena Australiara iristen diren etorkinei buruzkoa.

Animaliek pairatzen dituzten tratu txarrak mintzagai 'Forum'-en

Kepa Tamames, animaliei tratu egokia ematearen aldeko elkarte koordina-tzailea, ETB2ko *Forum* saioan izango da gaur goizeko 10:00etan.